

# UNAI CORBELLA:

“Sekulako  
ilusioa dut  
Aida emazteari  
eta Aisha  
alabari Hernani  
erakusteko”



Esti Zeberio Zubelzu

**Senegaldar bat gehiago da Unai Corbella (Hernani, 1984) Dakar hiriburuan. Bi hernaniarrekin batera zapaldu zuen Senegal aurreneko aldiz, eta bertan geratu zen ‘harrapatuta’. Oihanean hasi zen lanean, eta zine eta produkzio lanetara lotuta bizi da egun. Aktore zuri baten beharra dagoenean, Unai Corbella izaten da perfektua. Jatetxe bat irekitzea du orain, eskuartean; eta euskal plateren bat egin eta gustatzea, amets. Euskal Herria eta Hernani erakutsi nahi dizkie Aida eta Aishari; eta euskara garatu eta praktikatzeko aukera eman, alaba txikiari. Epe motzera ordea, Senegalen ikusten du bere burua.**

**Hamar urte daramatzazu Hernanitik kanpo. Azkene-ko etapa, luzeena, Senegalen. Etapa berri baten bila joan, eta bertan errotu zarela esan liteke.**

Erabat. Geratzea erabaki nuenean, ez nuen imajinatu ere egin hainbeste denborarako izango zenik. Ez nuen epe luzera begiratzen. Konturatu naizenerako ordea, denbora pasa egin da. Madrilen egon nintzen Senegalera etorri aurretik, eta bi etapa oso diferente izan dira: gaua eta eguna, literalki.

**Emaztea eta alaba dituzu, etxea, lana... senegaldar bat gehiago zara dagoeneko.**

Bai, Aida emazteak askotan esaten dit beraiek baino senegaldarragoa naizela gauza askotan. Badira zenbait gauza halabeharrez egiten dituztenak, eta niretzako plazerra direnak: garraio publikoan mugitu edo kalean jan, esaterako. Autobusa hartzea oso dibertigarria izate-

ra iritsi liteke, antzezlan bat ikustera joatea bezala izaten da: bronkak, barreak, garrasiak... Kalean jatea ez dute gomendatzen, eta niri aldiz, ikaragarri gustatzen zait kaleko postuetan jatea.

**Goazen hasierara. Lagunartean egindako bidai batean hasi zen guztia. Senegal zen helmuga, baina egun batzuetarako. Zerk engantxatu zintuen?**

Mikel Aramendi eta Xabier Zuñiga hernaniarrekin egin nuen bidai hura. Surfa egitera zetozen. Mikelek eta biok urtero egiten genuen bidaien bat, eta Dakar zen helmuga. Madriletik etorrita, beste hiriburu bat espero nuen; hasiera batean ez zidan atentzioa eman. Casamance eskualdera joan ginen ordea, bidaiako azken astean, eta bertan sentitu nuen ‘Afrikaren deia’ esaten dena. Madrilen nuen hutsunea bete nuen bertan. Oasi txiki bat zen hura.



**Aida eta Aisha Lur Dakarreko hondartzan.**

**Bizitzeko askorik behar ez dela konturatu zinen Senegaleko aurreneko etapa hartan. Oihanean bizitu zinen. Erraz egokitu al zinen? Nolakoan izan zen egunerokoa?**

Denboraren perspektibarekin begiratuta, harritu egiten naiz bizimodu hartara egokitze izan nuen erraztasunaz. Naturala izan zen. Kafountine herrira iritsi, eta Mama Maria kanpamenduan ezagututako lagun batekin jarri nintzen kontaktuan: Ibrahimia Camara. Gaztelaniaz hitz egiten zuen, eta hori aldeko izan nuen aurreneko egunetan. Lan bila hasi nahi nuela eta, inguruko hotel eta kanpamenduetan galdetzeko esan zidan. Ni ez nintzen Afrikara zuriekin lan egitera etorri, beraz, bera zertan aritzen zen galdetu nion. Etxeetako teiltatuak egiteko beharrezkoak diren materiala lortzea zen bere eginbeharra: lasto eta palmera enborrak moztea. Beraiekin joan nahi nuela esan, eta ez zela zurientzako lana erantzun zidan. Probatzea eskatu, eta lanean hasi nintzen. Goizeko seitarako, aurreneko eguzki izpiarekin batera, oihanean izaten ginen. 14:00ak arte egiten genuen lana, eta eguneko 1.000 cfa irabazten genituen, 1,5 euro inguru; eta bazkaltzeko arroz plater bat. Ez da diru asko, baina nire gauzetarako nahikoa.

**‘Oihanean hasi nintzen lanean, etxeetako teiltatuak eraikitze lasto eta palmera enborrak mozten. Eta hori, bertako lagunak segituan sententziatu ninduela; lan hura ez omen zen zurientzako.’**

**Zenbat diru behar zenuen bizitzeko?**

Etxeagatik 8 euro ordaintzen nituen, hilabeteko. Gosari eta afarietan 8 zentimo inguru gastatzen nituen; luxu gabe noski. Bazkaria lantokian ematen ziguten. Argindarrik eta iturrik ere, ez nuen. Goizean esnatu eta ondoko putzura joaten nintzen, ur bila. Gerora beste hainbat lan egin nituen: mobiletarako musika saldu, mobilak salerosi... Zineman lan egiteko eskatu zidaten arte.

**Eta han ezagutu zenuen, Aida, emaztea. Nolakoan izan zen hasiera?**

Oso zaila. Madrilen erraza zen neska eta mutilen arteko harremana. Gainera, zuria izanda, ez nuen diruagatik gerturatzeko ziren nesken atzaparretan erori nahi. Bertako lagun baten dendara joaten nintzen arratsaldetan, eta Ai-

dak aldamenen egiten zuen lana, ile-apaindegi batean. Ez nuen ezer seriorik nahi, baina berehala konturatu nintzen, berarekin egon nahi nuela. Oztopo asko genituen: hizkuntza eta ohitura ezberdinak. Barrez lehertzen gara orain, garai haiek gogoratzean.

### **Familia osatu duzu berarekin.**

Hala da, Dakarren bizi gara, hiriburuan, Aisha alaba, Aida emaztea eta hiruok. Nik kanpoan egiten dut lana, eta berak etxean. Nortasun fuertea du berak, eta ni eraman erraza naiz... ondo moldatzen gara!

### **Dakar hiriburu gogorra dela esaten da. Ingurua ordea, lasaiagoa.**

Zentzu askotan da gogorra. Ekonomikoki hemengo bizi-modua ez da erraza. Eta zarata handia dago edozein ordutan. Alde miressgarria ere badu, ordea. Zuri batentzako errazagoa da bertan lana bilatzea. Hala ere, faltan botatzen dugu Casamanceko bake sentsazio hura. Gainerako eskualdeak oso lasaiak dira. Hori bai, biharko ogia erosteko dirua nondik atera ez dakitela bizi dira asko.

**‘Biharko ogia erosteko dirua nondik aterako duten ez dakitela bizi dira hemen asko.’**

### **Krisiak eta ekonomia arazoek ere badute lekua Dakarren.**

Arazo ekonomikoak mundu osora zabaldu direla esango nuke, eta hemen ez gara salbuespen bat. Krisi ekonomikoa, gobernua lapurtutako dirua... Barcenasek lapurtutakoa ez da ezer Abdulay Wadek lapurtutakoarekin konparatzen badugu. Baina, nire ustez, izugarri nabaritu duguna da Gadaffiren erailketa. Gadaffik asko lagundu izan dio ekonomikoki Senegali, eta baita Afrikako beste zenbait herrialderi ere. Baldintza oso onak jarri zituen; konparaezinak, Nazioarteko Moneta Funtsak (Fondo Monetario Internacional) edo Munduko Bankuak (Banco Mundial) Senegali jartzen digutenekin. Hala ere, herrialde hau frantses, txino eta libanotarren esku dago. Ez da erraza aurrera egitea, eta are gutxiago, familian kide asko badira.

**‘Barcenasek lapurtutako dirua ez da ezer hemen Abdulay Wadek lapurtu duenarekin konparatuta.’**

**‘Gadaffiren erailketa asko nabaritu genuen. Gadaffik asko lagun zion Senegali ekonomikoki.’**

### **Eta ondo moldatzen al zara senegaldarrekin? Nolakoa dira?**

Bi hitzekin definituko nituzke: hitzunak eta alaiak. Beti musika entzuten eta dantzatan. Musulmanak izan arren, oso irekiak dira sexuarekiko. Bandidoak ere badira; dirua lortzeko dena da balekoa. Hau orokorrean da noski, leku guztietan bezala, hemen ere denetatik baitago. Ongi egokitu naizela esan liteke, familian, kalean... ni saiatu naiz integratzen, eta hanka sartzen badut, Aidak segituan esaten dit.

### **Inguruan ba al duzu beste euskaldunik? Edo gertuko norbait?**

Ez, apenas dut kontakturik zuriekin, eta ez da nahi ez dudalako. Bizi naizen auzoan, lanean eta inguruan, ez dago ia europarririk; beraz, euskaldunik ere ez. Izango da bakarren bat Dakar inguruan, baina ez ditut ezagutu.

### **Hizkuntza ere ez da arazoa izan. Frantsesik jakin gabe iritsi zinen, eta egun wolofa ere hitz egiten duzu. Erraza izan al da ikastea?**

Ez dut beste erremediorik izan; ni bizi naizen inguruan, familian, wolofa hitz egiten dute. Frantsesa errazago ikasi dut. Lanean bi hizkuntzak behar ditut; batetik, produktore frantsesekin egiten dudalako lana; eta produkzio kale lana egiteko, wolofa behar dudalako.

### **Eguneroko bizitza aipatu duzunean, behin baino gehiagotan egin diozu erreferentzia aktore eta produktore lanari. Kontatu nolakoa izan den prozesu hori.**

Casamancen bizi nintzela, Sevillako Jaleo films produktorako kide batekin jarri nintzen harremanetan; Madril-en nituen kontaktuek lagundu zidaten. Lanera zetozen, eta bi herrialdeen arteko koordinazioan laguntzeko eskatu zidaten. Izugarrizko dirutza eskaini zidaten orduko soldatarekin konparatuta. 2011ko urtarrilean hasi zen ni eta zinearen arteko harremana, Palmareko herri txiki batean.

### **Lehendik halako lanik egin gabea zinen. Erraz ikasi al duzu?**

Nahiz eta esperientziarik ez izan, nire izaerari lotutako lana dela uste dut. Hara eta hona, pelikularako behar diren gauzak lortzen ibiltzen naiz, jendearekin kontaktuak, prezioak negoziatzen... Nire saltsan. Zailena antolakuntza izaten da. Energia asko behar izaten da, eta afrikarrekin konparatuta, irabazteko asko dut, bizkorragoa bainaiz. Ondo egindako lana gustatzen zait, afrikarrei ordea, orokorrean, berdina zaie. Eta niri, baloratu egiten didate hori.

### **Arrakasta handia izan zuen serie bat egin duzu. Eta beste bat ere ba omen duzu eskuartean. Txuri baten beharra dutenean, zuregana jotzen omen dute, eta normalean, gaiztoarena egiteko.**

Aliune Mbowek egin zidan eskaintza. Afrikako soinu teknikari inportanteenetakoa da, eta lagun bat telesail bat grabatzen ari zela esan zidan. Zuri baten beharra zutela eta, interesik ba al nuen galdetu zidan. Eta beti bezala, baiezkoa eman nion. Bertako telebista ez dut oso gogoko, eta ez nekien zein zen nire papera. Larunbat batean grabatu genuen, eta Espainiatik zetorren droga saltzaile baten papera egin behar nuen. Senegaleko neska eder batek nire lanaren berri eman zion Espainiako polizia, eta preso nengoen. Nire diru guztiarekin geratu zen, eta Senegalera itzuli zen ondo bizitzeko asmoz. Ni, kartzelatik ateratzean, Dakarrera etorri nintzen, neska bilatu eta tirokatu egin behar nuen. Hori zen nire papera. Igandean bertan jarri zuten telebistan, eta segituan konturatu nintzen nire hanka sartzeaz. Senegaleko telesail ikusiena zen, eta nik hildako neska, maitatuena. Hurrengo aste-





**Unai eta Xu; Unairen lagun senegaldarra margolari-ablesaria da.**

tan jende askok geratzen zidan kaletik, nahiko ezaguna nintzen. Nazkatuta bukatu nuen, eta hurrengorako ondo ikasita.

#### **Eta nola bizitu zuten hura ingurukoek?**

Emazteak nirekin kalera ateratzeari utzi zion. Halako gauzak ez zaizkio gehiegi gustatzen. Baina ilusioa ere egiten ziola esango nuke, lagunek deitzen ziotenean "bai, bai, nire senarra da" gustura esaten zuen. Betiko gorabeherak.

#### **Aktore lanak alde batera utzita. Familia eta lagunak bisitarik izaten al duzu? Unai Dakarren dagoela eta, aitzakia perfektua izango da!**

Bai, eta gainera izugarri gustatzen zait jendea bisitan etortzea. Madrilgo garaietan ere bai. Gainera, ezagutzen ez nuen jende pila ezagutzeko aukera izan dut; 'lagun baten lagunak esan dit hor bizi zarela, eta ea lo egiteko zerbait gomendatzen diguzun' bezalako mezuak jasotzen ditut. Nik etxeko ateak zabalik izaten ditut, eta zorionez, baiezkoa jaso izan ohi dut. Hala, bertako berri izateko aukera izaten dut, nire hizkuntzan hitz egitekoa... Norberaren hizkuntza baino hoberik ez dago ondo komunikatzeko. Bisitaren bat dudanean, normala baino gehiago hitz egiten dudala uste dut!

**'Senegalera etortzen diren lagun edo ezagunei, nire etxera etortzeko gonbidapena egiten diet. Asko eskertzen dut. Aurreneko orduetan ikaragarri hitz egiten dut, normalean baino gehiago.'**

#### **Ez da erraza lau hitzetan herrialde bat eta bestea konparatzea. Baina zer eman dizu Senegalek, Euskal Herriak eman ez dizuna? Eta alderantziz, euskal mundutik zer botatzen duzu faltan?**

Senegalek ematen didana da, etxetik atera orduko eguzkia izatea zeruan, eta irribarreak herritarren aurpegietan. Tontakeri bat irudituko zaie batzuei, baina eguna hasteko energia txutea da. Etxeetako ateak irekiak daude edonorentzat, eta hasieran horretara ohitzea zaila egin bazitzaidan ere, asko erakutsi dit. Bestetik, Euskal Herria da nire etxea. Beti botatzen dut faltan. Egunero dut oroitzapenen bat; batez ere familia, lagunak eta janaria etortzen zaizkit burura. Eta estimatzen dut baita ere, euskaldunok emandako hitzarekiko dugun errespetua. Hemen ez da hainbeste baloratzen.

**'Faltan botatzen dut euskaldunok emandako hitzarekiko dugun errespetua.'**



**Gaur egun sare sozialek eta internetek lagunduko dizu harremana izaten, hemengo berri, azken notiziak...**

Neurri batean, bai. Facebooken lagunak berri izaten dut. Eta Hernaniko Kronika ere jarraitzen dut, bertako berri izateko; urruti bizi garenontzat inportantea da herriko komunikabideek egiten duten lana. Ahal dudanean Gara ere irakurtzen dut; Publico ere, tarteka. Saiatzen naiz.

**Azken berriei helduta, Ebola gaitza besterik ez da entzuten han eta hemen. Nola bizi duzue?**

Senegalen kasu bakarra egon da. Mugak itxita daude, eta oso zaila da kutsaturen bat sartzea. Gainera sekulako prebentzio kanpaina egin dute. Entzun dudanez, hara Euskal Herrira iristen diren berriak latzak dira; hemen ordea, lasai gaude.

**Hernanira etorri izan zara ordutik, baina familiarekin ez. Epe motzean asmorik bai?**

Jatetxe bat irekitzeaz nago, eta ez dut uste denbora askorik izango dudunik. Urrian Frantziako pelikula bat grabatzekoak ere bagara... Ez dut emaztea neguan eraman nahi, bestela, iritsi orduko itzuli egin nahiko du hotzagatik. Udara arte itzarongo dugu. Inchallah. Sekulako gogoak dut emaztea eta alabari nire herria erakusteko; gainera, Aishak ikasitako euskara garatzeko aukera izango du.

**Eta zure planen artea, ba al dago Hernanira bizitzera etortzea?**

Oraintxe ez dakit zer erantzun. Hernanin geratzeko ilusioa beti dago hor, baina orain hemen nago, eta epe motzean hemen jarraituko dudala dirudi. Gainera, mundua oso handia da, eta toki asko ditut oraindik ezagutzeko. Ez dakit. Senegaldarrek dioten bezala, Alak bakarrik daki hori.

**Beraz, Unaien helburuak, epe motzera, Senegalen dute lekua.**

Hala da. Esan bezala, jatetxe bat irekitzea dut orain, eskuartean. Saiatuko naiz euskal plateren bat tartean sartzen. Harrera ona badu, ilusio handia egingo dit, zoriontsu izango naiz. Familia aurrera atera, alaba hazten ikus-tea ere bada epe motzera dudana helburu bat. Zinemaren bueltan ere, proiektu interesgarriak ditut 2015ean. Eta epe luzera zeinek daki. Seme-alabaren bat izan nahiko nuke; ni seme bakarra naiz, eta nire alabak beste anai-arreben bat izatea nahiko nuke. Baina hori etxeko kapitainaren erabakia da. Beste guztia bezala. Hemen gizonezkoek agintzen dutela diote, baina nik ez dut hala bizi. Akaso itxura batean bai, baina benetako momentuetan emakumeek agintzen dute.